

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza



2013-07-28

LITERATURA. 'ALDJEZAIRIA ASKATUTA'

# Ikasi des-ikasteko

MIKEL ASURMENDI

**Egilea:** Txomin Peillen.

**Argitaletxea:** Txalaparta.

«Baliteke beste itsukeria handiagoak gertatu izana gerra hartan, baina ezagutzen ditudanaz mintzo naiz». Hitzok liburu hibrido honen egile Txomin Peillen Karrikabururenak dira. Bejondeizula Parisen sortu —arraioa, 1932an sortu ere— Zuberoko Santa Graziko seme hori. Hibridoa baiki: historia, ipuinak, lekukotasunak biltzen baititu, baita poema bat ere. Poema Abd El Kader-i eskainia. Lehen aljeriar musulman estatuaren eraikitzailea.

*Aldjezairia askatuta* edota *Euskadi askatuta*, horra historiaren bilakaeran soinu bakarreko bi oihu agian —agian, zuberotarren gisara—. Lehena Estatu izana, kolonizatua eta okupatua, eta berriz ere, halaxe bilakatua. Bigarrena, artean oihu ozena baino ez, historiaren nondik norakoan bere lekuaren xerka dabilena. Gurea, hots.

Hiru atal, epilogo eta hitzaurrea. Hitzaurrea Joseba Sarrionandiarena. Peillen «lekuz kanpo zebilen»-eko garaia oroitarazi digu iurretarrak. Arabiar kulturaren zalea zen Peillen, baita kultura amazigharen zalea ere. Iurretakoak hitzaurrea izkiriatzea ez da kasualitatea. Kausalitatea ote den pentsu dut lipar batez. Honelaxe diosku *Moroak gara laino artean?* saioaren egileak: «Aljeriarekiko bere afektuaren eta bere enpatiaren froga da bost ipuinetako narratzailea afrikarra dela, europarra hiru ipuinetakoa den artean. Gero, egiaren bilaketa bat dago testu guztietan».

1958. urte aldean sortu ginenok ez geunden orduko Aljerian, prefosta. Peillen gazte hura bai. Frantziako armadan erizain lanetan ari zen. Aitua izatea ez da aski, aritua izan behar da, mundua eta bizitza zer diren ezagutuko badugu. Merezi du liburuak, merezi duenez. Garai hartan idatzia duzu berau.

«Estatua eta ordena batetik, eta terrorismoa eta gaiztakeria bestetik». Horra berba zurrunetan gizateria deskribatzeko lerro-buru bat. Lerroburuek errealitatea desitxuratu ohi dute —kazetariok badakigu horretaz zerbait—; alta, adierazten dute errealitatearen partea ere. Nahiz zenbaitetan, bestera irakurtzea ere komeni den: «Estatua eta terrorismoa batuta daude eta ordena —zuzentasuna — ezarri nahiak gaiztakeria ekartzen du».

*Aldjezairia askatuta*-k «legez kanpokotasuna» ezagutzera ematen digu, ederki eman ere. Izan ere, ba ote askatzaile izan, justiziaren xerka injustiziaren partitzaile bilakaturik? Galderak ez du erantzun errazik. Hara zer dioskun Gilabert Narioo biarnesak: «*Lo patriota que resisteish a una armada d'ocupacion tant que n'a pas ganhat qu'ei un terrorista*».

Galdetu frantziarrei De Gaulleren berri: askatzailea! Hots, frantziarren askatzailea nazien okupazio garaian. Galdetu Mitterrandez: berdin. Galdetu aldiz aljeriarrei? Frantziako justiziaren buru zen Mitterrand: «*Etiā innocentī cogit mentiri dolor* / Minak errugabeak gezurti bihurtzen ditu». Haiek, aljeriarrak, Felaga hasi ziren frantziar okupatzaileen aurkako gerran eta garaile jalgi. Terrorismoa hitza ere garaitu zuten. Eta gu? Horra ikasgaia. Eta gu? Zer gara gu? Erantzuna, erantzun ofiziala, historiaren bilakaerak ekarri digu.

Bizkitartean, Aljeriako basamortuan aurkituko duzu Peillen: erizainaren lana egiteaz gain, ur-bilatzearen lana egin zuen zuberotarra. Gu jaio ginenerako zer ez zuen ikasia santagraztarrak. Euskararen iturri oparoak kausitua zituen ordurako. Arabiar hizkuntzen hamaika eleen ezagule eta ekarle bilakatu zen. Zer ez zuen bitua, alajainkoa!

Haiek *vascos/basques* euskaldunak garela ikasi behar dute eta guk berbereak amazighak direla ikasi ere. Ikasi ere *Felaga, smala, harki, rumi* hitzen bestaldeko munduaren berri, besteak beste. Hots, ikasi baita des-ikasi ere.

## Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1** Emakume bat hil da Andoainen, trenak harrapatuta
- 2** Administrazioaren egitura %25 txikitzea erabakiko du gaur Jaurlaritzak
- 3** Kolonbiako bake elkarrizketetan parte hartuko dute indarkeriaren biktimek
- 4** Mursirekin bildu da Catherine Ashton
- 5** Larrialdi egoera ezartzea ez du baztertzen Egiptoko armadak



Laguntzaileak:



KULTURA SAIA  
Hizuntza Politikoko Saiburordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako  
Foru Aldundia